

**“EAEKO GAZTERIAREN ENPLEGAGARRITASUNA ETA LAN-MERKATUAN SARTZEA
EUROPAKO ESKUALDEKO IKUSPEGI KONPARATZAILTIK” AZTERKETA KONTRATATZEKO
BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

1- AZTERKETAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ESPARRUA

Europako pertsona gazteek lan-merkatua sartzeko zailtasun handiagoak dituztela nabarmendu du krisialdi ekonomikoak, lehen baino modu gordinagoan.

EUROSTATen datuen arabera, EBn, % 20 ingurukoa zen gazteen langabezia-tasa EB osoan (% 19,9 28ko EBn eta % 21,9 eurogunean), eta % 30etik gorakoak ziren Italian, Portugalen eta Zipren, esaterako, eta % 40tik gorakoak Grezian (% 48,8) eta Espainian (% 46,6). Beste muturrean zeuden Danimarka, Malta, Austria eta Holanda, % 11-% 13 inguruko ratioekin, eta Alemania nabarmen ziren gazteen langabezia-tasa txikiagatik: % 8,3. Datu horiek erakusten dutenez, EB osatzen duten herrialdeen artean alde handia badago ere, Europa hegoaldeko herrialdeetan arazoa askoz ere nabarmenagoa da.

Langabezia tasa altu horiek azaltzeko arrazoi nagusien artean elkar konektatuta dauden hiru eremutatik datozen faktoreak kontuan

hartu behar ditugu: hezkuntza-prestakuntza, herrialdearen egitura ekonomikoa eta lan-merkatua, ikuspegi pertsonalari, sozio-pertsonalari eta testuinguru-egiturari erreparatuz.

Era berean, kontuan hartu behar dira enpleguaren baldintzak eta inguruak, noiz sortzen den eta lehenengo urteetan nola garatzen den.

LANGABEZIA EB-N: 2014-2015EKO ADIERAZLE NAGUSIAK. III. HIRUHILEKOA

	LANGABEZIA TASA OROKORRA		GAZTEEN L. TASA (<25 URTE)		LUZAROKO LANGABEZIA % (>1 URTE)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015
EB 28	9,8	9,0	21,6	19,9	49,9	48,2
Eurogunea	11,1	10,3	23,1	21,9	53,2	51,5
Belgika	8,7	8,2	21,3	22,2	49,8	51,0
Bulgaria	10,8	8,3	21,4	19,2	61,3	63,0
Txekiar errep.	5,9	4,8	16,3	12,9	43,8	48,5
Danimarka	6,5	6,2	13,1	12,8	25,4	25,2
Alemania	4,8	4,4	8,4	8,3	43,0	43,1
Estonia	7,5	5,2	13,4	11,6	43,4	35,6
Irlanda	11,3	9,3	23,2	20,7	57,6	55,6
Grezia	25,6	24,1	49,5	48,8	75,4	73,7
Espainia	23,7	21,2	52,4	46,6	53,4	51,0
Frantzia	9,9	10,0	23,8	24,5	44,8	44,8
Kroazia	15,7	15,5	40,4	41,0	61,5	67,5
Italia	11,8	10,6	39,6	35,3	63,3	59,1
Zipre	16,1	14,8	33,4	32,3	48,5	44,6
Letonia	10,6	9,7	21,4	16,2	42,7	50,6
Lituania	9,1	8,3	16,4	15,3	47,5	43,9
Luxemburg	6,4	7,7	36,6	17,4	27,7	26,7
Hungaria	7,4	6,4	21,6	16,7	46,6	47,4
Malta	5,9	5,3	12,0	13,3	46,3	44,5
Herbehereak	7,0	6,6	12,0	11,0	40,1	43,8
Austria	5,6	5,6	10,5	11,2	27,3	28,9
Polonia	8,2	7,1	23,1	19,7	43,7	37,7
Portugal	13,3	12,1	32,2	30,8	60,1	57,5
Errumania	6,5	6,5	22,5	19,9	39,7	45,2
Eslovenia	9,3	8,6	18,4	12,9	52,6	55,6
Eslovakia	12,9	11,3	30,0	27,9	69,9	67,0
Finlandia	7,5	8,4	13,5	16,3	25,5	28,2
Suedia	7,2	6,6	18,1	15,9	19,4	22,2
Erresuma Batua	6,1	5,5	17,2	15,2	34,1	28,2
EAE*	15,8	14,7	42,4	34,9	:	:

Iturria: Bertan egina, EUROSTAT eta EUSTATen datuekin.

**laugarren hiruhileko datuak. * 2015eko datuak behin-behinekoak dira,*

Prospektibaren arabera, bilakaera demografikoak eta, bereziki, Europako herrialdeen zahartzearen areagotzeak gazteentzako aukera gehiago sortuko ditu belaunaldien arteko erreleboarekin batera, baina enplegurako behar diren prestakuntza eta profila oraingoetatik desberdinak izango dira, inguru ekonomiko eta soziologikoa desberdina izango delako.

EAEn ere antzematen da egoera hori, baina, kasu honetan, estatuko gainerako autonomia erkidegoetatik eta Europar Batasuneko herrialdeetatik bereizten duten berezitasunak ditu.

2- AZTERLANAREN HELBURUA

Azterlanaren helburua euskal gazteriaren oraingo eta etorkizuneko enplegarritasunaren eta lan-merkatutarako sarbidearen analisia egitea da, Europa mailako ikuspegi konparatzailetik.

3- AZTERLANAREN EDUKIA ETA FASEAK

Abiarazteko dokumentua

Haren barruan lanaren helburuak, metodologia, funtsezko kontzeptuak eta aurkibide xehea sartuko dira.

Helburuak, oinarritzko kontzeptuak eta aurkibide xehea definituak daude eta agirietan azaltzen dira.

Ondoren, oinarritzko kontzeptuak adierazten dira eta dokumentu honen amaieran lanaren aurkibide xehea ikus daiteke:

- ✓ **Enplegarritasuna**, probabilitate bezala. Hau da, lan-merkatutara sartzeko eta bertan mantentzeko probabilitatea, pertsonen gaitasunei, enpresen eta enplegurako zerbitzu publikoen baldintzapenei eta gizartearen eta laneko inguruaren baldintzei erantzunez, aldatuz doan inguru batean.
- ✓ 16-35 urte bitarteko biztanleria hartuko litzateke **biztanleria gaztetzat** baina kontuan izan behar dugu pertsona gazteen kolektiboa ez dela existitzen edo gutxienez ez dela kolektibo homogeenoa bat. Edonola ere, analisek kontuan hartu behar dute biztanleria gaztea eta argi bereizi behar dute adin mailen (16-20, 21-25, 26-30, 31-35), sexuaren eta hezkuntza mailaren arabera, arazoak eta irtenbide posibleak desberdinak izango direlako. Hezkuntzaren, edo gaitze profesionalaren alorrean edo lan-merkatutara sartzeko (enplegu babestua) premia bereziak dituzten pertsona gazteak ere bereizi beharko dira.
- ✓ **Denbora eremuak** 2000-2015 denboraldia hartuko du, 2020/2025erako etorkizunarekin.

Dokumentua emateko epea 8-10 egunekoa izango da, kontratua sinatzen denetik.

1. kapituluak. Azterlanaren sarrera eta ikuspegi orokorra.

Kapitulu hau abiarazteko hartutako dokumentutik abiatuta idatziko da eta azterketaren helburu estrategikoa, helburu operatiboak, oinarritzko kontzeptuak eta azterketan erabiliko diren tresna metodologikoen azalpen zehatza izango ditu.



Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Kapitulu hau lan guztia amaitutakoan idatzi ahal izango da, hau da, azken dokumentua entregatzen denean eta aurreko kapitulu guztien laburpena izan daiteke.

2. kapitulua. Euskadiko pertsona gazteen egoera, demografiaren, hezkuntzaren eta lan-merkatuaren arabera.

Helburua 200.-2015 denboraldian Euskadiko demografiari, hezkuntzari eta lan merkatuari erreparatuz ezaugarri nagusiak eta 2020/2025erako joerak aztertzea da. Analisia azterketaren xede den taldean, hau da, gazteengan oinarrituko da.

Kapitulu honetako eduki gehiena jada eginda dago.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua sinatzen denean jada bildutako edukiarekin dokumentua jasoko du eta amaitzeko konpromisoa hartuko du.

Hurrengo puntuetan kontratazio honen xede diren analisiak zehazten dira:

- Hainbat puntutan EBren batez bestekoarekin alderatzea.
- Funtsezkoak diren zenbait adierazle (PISAr buruzko datuak...¹) eguneratzea.
- Profesionaltasunaren ziurtagiria lortu duten gazteen bilakaera aztertzea eta sexuaren nahiz arlo profesionalen arabera bereiztea.
- Lanbide Heziketan titulua duten pertsonen eboluzioan, txandakatuta prestakuntza dualaren bitartez titulua lortzen duten gazteekiko aipamen bereziak (osoak eta erlatiboak) sartzea.
- “Lanaren eremuan enplegurako Lanbide Heziketaren Sistemari” buruzko epigrafe osoa.
- “Prestakuntzatik lan jarduerara” epigrafe osoa, hau da, beken eta praktiketako programen sorta zabalean gazteen partaidetzari buruzko azterketa sakona. Izan ere, puntu honetan Batzordeak interes handia du.

Hura emateko epea hil eta erdikoa izango da, kontratua sinatzen denetik. Oinarritzko dokumentuaz gain, Kapituluaren Laburpen Betearazlea sartuko da eta dagoen batetik abiatuta burutuko da. Kontratua sinatzean entregatuko da.

Ondoren, kapitulua osatzen duten alderdi guztiak zehaztuko dira eta gorritz kontratazio honen xedeak azpimarratuko dira, gainerakoak jada eginak baitaude.

Alderdi demografikoak

Helburua demografiak iraganean izan dituen, orain dituen eta etorkizunean izango dituen oinarritzko ezaugarriak eta joera nagusiak berrikustea da, EAEko pertsona gazteen kolektiboaren gehiengoari eragiten dietenak.

Besteak beste, 2000-2015ean EAEn 16-35 urte bitarteko populazioaren eboluzioa (tarteak: 16-20, 21-25, 26-30 eta 31-35 urte) eta 2020/2025era proiektzioak aztertu dira, bai zenbaki osoekin, baita guztizkoaren gainean ehunekoekin eta sexua kontuan hartuta ere.

¹ EGABn azterketaren arduradunak eta enpresa adjudikaziodunak adostasuna lortuko dute behar bezala eguneratzeko.

Hezkuntzari buruzko alderdiak

Biztanleriak azkeneko bi hamarkadetan jasotako hezkuntzaren maila hobetuz joan da eta jasotako hezkuntzaren batez besteko maila altuago hori gazteen kasuan egoera hobetu egin delako gertatu da, biztanleriaren gainontzekoaren egoerarekin alderatuta. Hala ere, aztertu beharreko zenbait adierazle daude, horietatik aterako direlako ondorioak ateratzeko orduan kontuan hartu beharko diren emaitzak.

Helburua gazteen prestakuntza mailari dagokionez eboluzioaren ikuspegia adin tarteei (16-20, 21-25, 26-30, 31-35) eta sexuari erreparatuz azaltzea da.

- Gazteen hezkuntza mailari dagokion eboluzioa
 - EAEko gazteen ikasketa maila (amaituta edo jardunean)
 - Gazteetan hezkuntza adierazleak:
 - ✓ 20 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen eboluzioa, goi mailako bigarren hezkuntzan titulua izanik.
 - ✓ 25 eta 34 urte bitarteko biztanleen prestakuntza maila
 - ✓ 30 eta 34 urte bitartekoen prestakuntza maila
 - ✓ Eskola goiztiar uzteari buruzko tasa (EGU, **eguneratzea**)
 - ✓ Iristea, graduatzea eta egokitasuna: eskola uztea, hurbilketa hezkuntza mailak kontuan hartuta.
 - ✓ Gaitasun matematikoetan, irakurtzeko ahalmenetan eta zientzian etekina (**PISA, eguneratzea**).
- Gazteen prestakuntza espezialitateak eta ezagutza arloak
 - Matrikulatutako gazteen eboluzioa, irakaskuntza motaren arabera.
 - **Profesionaltasunaren ziurtagiria lortu duten gazteen eboluzioa. Balio osoak (gutzizkoa eta sexuen arabera) eta gutzizkoen gainean garrantzia.**
 - Lanbide Heziketan tituludunen eboluzioa.
 - ✓ **Txandakatuta prestakuntza dualaren bidez titulazioa lortzen duten gazteen aipamena (balio osoak eta erlatiboak).**
 - Ezagutza arloen arabera unibertsitatean tituludunen eboluzioa.
 - Adierazlea: 20 eta 29 urte arteko pertsonak, Zientzia eta Teknologian tituludunak (**eguneratzea**).
- **Lanaren eremuan enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema**
 - **Eskariari buruzko trebakuntza. Gazteentzat enpresek programatutako trebakuntza. Balio osoak (gutzizkoa eta sexuen arabera) eta gutzizkoen gainean garrantzia.**
 - **Eskaintzari buruzko trebakuntza**
 - ✓ **Langile gazte okupatuentzat administrazio eskudunen prestakuntza eskaintza. Balio osoak (gutzizkoa eta sexuen arabera) eta gutzizkoen gainean garrantzia.**
 - ✓ **Langile gazte langabetuentzat administrazio eskudunen prestakuntza eskaintza. Balio osoak (gutzizkoa eta sexuen arabera) eta gutzizkoen gainean garrantzia.**

Lan-merkatuaren alderdiak

Gazteek lan-merkatuan bizi duten egoera erlatiboa aztertzea da helburua, parte-hartzeari, enpleguari eta langabeziari dagokienez.

Adierazle hauek barne hartuko ditu, 2000, 2008 eta 2015erako eta sexuaren eta lau adin tarteetan arabera banatuta (16-20, 21-25, 26-30, 31-35 urte eta GUZTIZKOA):

- EAEn gazteen jarduera eta jarduerarik eza (**kasu batzuetan europar batez bestekoarekin alderatzea**):
 - 16tik 35 urtera arteko biztanleen ehunekoa lan egiteko adinean dagoen biztanleria, biztanleria aktiboan eta lanean dagoen biztanlerian.
 - EAEn gazteen jarduera eta jarduerarik eza
 - Prestakuntza/hezkuntza eta jardueraren arteko harremana aztertzea (bereziki, 24 urtera arteko tartean)
- **Prestakuntzatik lan jarduerara. Gazteek titulazioak lortu ostean praktiketako programetan eta beketan parte hartzea.**
- EAeko gazteen lan ibilbideak
 - EAEn lan merkatuan sartu eta bertatik ateratzeari buruzko fluxuak
 - EAeko gazteen lan ibilbideak, Lan Biziaren Etengabeko Laginaren arabera.
- EAeko gazteen enpleguaren ezaugarriak (**kasu batzuetan europar batez bestekoarekin alderatzea**):
 - Enpleguaren behin-behinekotasuna
 - Lanaldia
 - Ordainsarien baldintzak
 - Lan kategoriak

3. kapitulu. Enpleguaren etorkizuneko ezaugarriak: 4.0 testuinguruan enpleguaren eboluzioan joerak

Kapitulu honen helburua 4.0 testuinguruan enplegu aukeren testuinguruak nola eboluzionatuko duen aurkeztea da.

Horretarako, batetik, munduan, Europan, Estatuan eta EAEn proiektzio edota etorkizunerako azterketa kualitatiboekin laburpen zorrotza egingo da eta, ondoren, hiru focusgroup izenekoak bitartez joerak alderatuko dira.

Joerak adieraztea: proiektzio estatistikoek edota azterketa kualitatiboek eskainitako ikuspegia


Proiektzio estatistikoak edota azterketa kualitatiboak erabiliz, bolumena, ezaugarriak eta zeregina kontuan hartuta, enplegua nola eraldatzen ari den azaldu nahi da, baita nola eraldatuko den ere.

Besteak beste, honako alderdiak deskribatzen saiatuko dira:

- 4.0 testuinguruan enplegu aukerak sortu ahal izango dituzten jarduerak eta ogibideak.
- 4.0 testuinguruan eskatuko diren titulazioak, prestakuntzak eta gaitasunak.

Adierazitako prestakuntzen alderatze kualitatiboa

Alderatze kualitatiboa hiru focusgroupez (FG) baliaturik egingo da. Ildo horri jarraiki, partaideak enpresa erakundeek (FG1), sindikatu erakundeek (FG2) eta gazteen erakundeek (FG3) proposatuko dituzte.



Focusgroup bakoitzak gutxienez 7 eta gehienez 25 pertsona izango ditu.

Focusgroupak eratzeko orduan, enpresa adjudikaziodunaren zeregina diseinuan eta egitean EGABri laguntzea da.

Emate epea bi hilabete eta astebetekoa izango da, kontratua sinatzen denetik. Kapituluarekin batera, laburpen betearazlea entregatuko da.

4. kapitulua. Analisi alderatua

Kapitulu honen bi zati izango ditu.

- Batean, dimentsioa, autonomia maila, ekonomia eta gizarte egitura, produkzio eredua kontuan hartuta, EAerekin parekotasuna izateagatik hiru eskualde hautatu ostean, gazteen enpleguari buruzko azterketa alderatua egingo da eta ezberdintasun/ezaugarri azpimarragarriak adieraziko dira.

Lan-merkatua, gizarte eta hezkuntza antolaketarako (STEAM) elementuak eta politika bereizgarriak, prestakuntza-enplegu ibilbideak, lan eta bizi baldintzak (ahal den neurrian, lanorduak, oporraldiak, amatasun eta aitatasun baimenen iraupena eta baldintzak, lana bateratzen laguntzeko politikak...), baita erakunde faktoreak ere, hala nola gazteentzako politika aktiboak (bereziki, hobariak eta diru-laguntzak) aztertuko dira.

Laburbilduz, EAEn pertsonak eta kolektiboak laneratzeko orduan, "lanaren eta gizartearen ingurunean" ditugun lagungarriak edo mugatzaileak ezagutzen eta alderatua hori neurtzen saiatuko da.

- Bestetik, dauden tokietan, prozesu arrakastatsua identifikatuko dira hurrengoek buruz:
 - Orientazioa, prestakuntza edota bitartekaritza.
 - Enpresa prestakuntza unibertsitarioa konexio mekanismoak (adibidez beka eta praktiketako sistemak).
 - Prestakuntza sistema aldatetara moldatzeko mekanismoak.
 - Gazteentzat kontratu formulak.

Emate epea lau hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen denetik eta oinarritzko dokumentuaz gain, Kapituluaren Laburpen Betearazlea erantsiko da.

5. Kapituluua. Laburpena, ondorioak eta gogoetak

Kapitulu honek azterketaren laburpena, ondorioak eta gogoetak edo gomendioak izango ditu.

Hura emateko epea bost hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen denetik.

Azken dokumentua: 1etik 5era bitarteko kapituluak.

Azkeneko txostena, 1etik 5era bitarteko kapituluek osatzen dutena, 5. kapituluua entregatu eta astebetera aurkeztuko da. Une horretan 1. kapituluua idatz daiteke.

Emate epea astebetekoa izango da, 5. kapituluaren ondoren.

Azterketa aurkezteko dokumentua

Enpresa adjudikaziodunak aurkezpen dokumentua idazteko konpromisoa hartuko du eta jendearen aurrean aurkezteko oinarritzat erabiliko da.

Jendearen aurrean aurkezteko dokumentua azken dokumentua entregatu eta 10 egunen buruan egina egongo da.

4- METODOLOGIA KONTUAK

Lehenik, Batzordearen osoko bilkurak ad-hoc sortutako Batzordeari esleitu dio azterlana. Hura lanaren planteamendua, jarraipena eta kontrola (edukia, metodologia, emate partzialak eta bilerak, bidean sortutako balizko birbideratzeak...) erabakitzeke bilduko da. Zentzu horretan, lanaren esleipendunak Lan Batzorde horri emandako zati bakoitzaren aurkezpenak egiteko konpromisoa hartuko du, azken horrek egokia iritziz gero.

Bigarrenik, bilatzen den helburua lana zerikusia izan dezaketen eragile guztientzat erabilgarria izatea da eta, beraz, ekimenak ikuspegi praktikoa eta sintetikoa du, ez teoriatzatzailea. Azken batean, amaierako txostena argia eta laburra izatea da, zerikusia duten eragileentzat orientabidea eta gida izan dadin.

Hirugarrenik, jendeari aurkeztu nahi zaio. Haren kudeaketan lanaren adjudikaziodunak lagunduko du.

5- GUTXI GORABEHERAKO LAN EGUTEGIA

Lanak 6 hilabete iraungo ditu eta honako entregagaiak izango dira:

	KONTRATUA SINATU ONDOREN EMATE DATA	GUTXI GORABEHERAKO DATA
Abiarazteko dokumentua	7 egun inguru kontratua sinatu ondoren	2017ko otsailaren 9a
II. kapitulua: demografia, hezkuntza eta lan egoera	Hilabete eta astebetea, kontratua sinatu ostean.	2017ko martxoaren 10a
III. kapitulua: enpleguaren etorkizuneko ezaugarriak: 4.0 testuinguruan enpleguaren eboluzioan joerak	Bi hilabete eta astebetea, sinatu ondoren.	2017ko apirilaren 7a
IV. kapitulua: azterketa konparatua	Lau hilabete, sinatu ostean.	2017ko ekainaren 1a
V. kapitulua: laburpena, ondorioak eta gogoetak	Bost hilabete, sinatu ostean.	2017ko uztailaren 3a
Azken dokumentua	5. kapitulua entregatu eta astebete.	2017ko uztailaren 10a
Jendurrean aurkezteko dokumentua	Aurrekotik 10 egunen buruan.	2017ko uztailaren 20a
Jendurrean aurkeztea		2017ko iraila

6- JARRAIPENA ETA KONTROLA

EGABen eta aholkularitza taldearen arteko harremana Euskadiko EGABek azterlanerako izendatutako arduradunaren bitartez gauzatu da, edo hark eskuordetuta, kasu zehatz batzuetan.

Lanen jarraipena eta kontrola Euskadiko EGABek izendatutako azterlanaren arduradunarekin egindako bileren bidez egingo da zuzenean, hark erabakitako tokian eta egunean, baina gutxienez hilero lana egiteko ezarritako epean, kontratua esleitzen den egunetik aurrera.

Erakunde adjudikaziodunek azterlanaren arduradunaren ikuskapen lana erraztu beharko dute, eskatzen zaizkien agiri guztiak emanez eta hari azterlana egin bitartean sortutako gertakari guztien berri emanez.

Aipatu den bezala, lanaren adjudikaziodunek konpromisoa hartuko dute azterlanaren entrega bakoitza Euskadiko EGABen azterlanaren ardura duen Lan Batzordeari aurkezteko, hark egokia iritziz gero.

7- PROPOSAMENA EMATEKO FORMATUA

- Azterlana idazterakoan mintzairaren erabilera sexista ekidin beharko da uneoro.
- Dokumentuak formatu digitalean entregatuko dira, eta inprimatutako dokumentuetan Word formatua erabiliko da.

8-- ZERBITZUA EMATEKO FORMATUA

- Azterlana idazterakoan mintzairaren erabilera sexista ekidin beharko da uneoro.
- Dokumentuak formatu digitalean entregatuko dira, eta inprimatutako dokumentuetan Word formatua erabiliko da. Honako ezaugarriak izango ditu:

Argibide hauek azterketa gitean orientabideak eskaini nahi dituzte:

ORRIALDE-DISEINUA

- Ertzak: Goi aldekoa: 2,50 Behekoa: 2,75
 Ezkerrekoa: 2 Eskuinekoa: 2
- Goiburua: goitik 1,25 Orrialdearen oinarria behetik 1,25
- Gaiak: Office
- Tamaina: A4
- Orientazioa: Bertikala
- Zutabeak: Bat
- Orrialdeen zenbakiak: Azpian eskuinean
- Oinarri oharra eta azken oharrak: Orrialdearen amaieran oinean oharrak, zenbakiaren formatua, 1, 2, 3. Arial 8. RGB kolorea.- Gorri95-Berde95-Urdin95. Justifikatua

KAPITULU BAKOITZAREN DISEINUA:

- **Lehenengo or.:**
 - azterketaren izenburua agertuko da komatxoaren artean idatzita, esaldi motan, orrialdearen goiko ertzetik 12 tarte bakunekin eta ezkerrean lerrokatua. Kolorea: RGB 255 gorria, 68 berdea eta 113 urdina.
Hizki mota: Calibri 25, lodia.
 - Azterketaren izenburutik tarte batera kapituluaren izenburua agertuko da. Letra larriz, calibri 18, kolore automatikoa eta **“1., 2., 3... KAPITULUA (lodiz)”** hitza kapituluaren izenburuaren aurrean.

(Adibide modura eranstean den dokumentuaren antzera)
- **Aurkibidea**
- **Taulen aurkibidea**
- **Grafikoen aurkibidea**
- **IZENBURUAK:** Hasi beti kapituluaren zenbakiz eta erantsi dagokion zenbakia.
 - **1.1. 1. TITULUA** Calibri 15. LETRA LARRIZ/kolorea: RGB 255 gorria, 68 berdea eta 113 urdina.

- **1.1.1. 2. titulua** Calibri 15. Esaldi mota/kolorea: RGB 255 gorria, 68 berdea eta 113 urdina.
- **1.1.1.1. 3. titulua** Arial 11. Esaldi mota/kolorea: automatikoa

Zenbakirik ez duten azpitoluak “2. testua” testu koadro urdin ilunean sartuko dira, ertzik gabe. Calibri 13 hizkia, lodia eta zuria.

- **TESTUA.-** Arial 11, kolore automatikoa, justifikatua, gutxienez 14 puntuko lerroartea.
- **TAULEN ETA GRAFIKOEN FORMATUA.-**

Koadro eta grafiko guztiak orrialdearen ertzaren gainean erdian zentratuko dira.

Goiburuaren formatua: kapituluaren zenbakia + koadro/grafikoaren zenbakia+ koadro/grafiko hitza. Zentratua, lodia, Arial 10 eta esaldi mota.

Koadro/grafikoaren oinari dagokion formatua: Arial 8 hitza/kolore automatikoa.

Erabili officeren gaiari dagozkion koloreak.


Koadroen letra: arial 8, kolore automatikoa.

(kapituluaren zk. eta koadroaren zenbakia) **koadroa 2.1.: ARIAL 10, ESALDI MOTA, LETRA LODIA, KOLORE AUTOMATIKOA**


XXX		2001	2004	2008	2012	2015	2020	2025
XXX	Guztira							
	Gizona							
	Emakumea							

Iturria: ARIAL 8 kolore automatikoa. Esaldi mota.

(kapituluaren zk. eta koadroaren zenbakia) **grafikoa 2.1.: ARIAL 10, ESALDI MOTA, LETRA LODIA, KOLORE AUTOMATIKOA**



Grafikoen kolorezko itzala eramango dute:



- Azterlana idazterakoan mintzairaren erabilera sexista ekidin beharko da uneoro.

AURKIBIDE XEHEA

(2. kapituluaren kapituluak osatzen duten puntu guztiak aipatzen dira eta gorriz kontratazio honen xede diren analisiak azpimarratzen dira.)

1. AZTERLANAREN SARRERA ETA IKUSPEGI OROKORRA.

2. EAEKO GAZTEEN DEMOGRAFIA, HEZKUNTZA ETA LAN MERKATUAREN EGOERA

LABURPEN BETEARAZLEA

2.1. EAEKO DEMOGRAFIA BILAKAERA ETA IKUSPEGIA: GAZTEAK LANERAKO ADINEAN

2.1.1 Bilakaera demografikoa

2.1.2. EAEen lanerako adinean dauden gazteen bilakaera

2.1.3. EAEen lanerako adinean dauden gazteei buruzko proiektzioak

2.2. EAEKO GAZTEAK HEZKUNTZA/PRESTAKUNTZA KONTUAN HARTUTA

2.2.1. EAEko gazteen hezkuntza mailari dagokion eboluzioa

- EAEko gazteen ikasketa maila (amaituta edo jardunean)
- Gazteetan hezkuntza adierazleak:
 - 20 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen eboluzioa, goi mailako bigarren hezkuntzan titulua izanik.
 - 25 eta 34 urte bitarteko biztanleen prestakuntza maila
 - 30 eta 34 urte bitartekoen prestakuntza maila
 - Eskola goiztiar uzteari buruzko tasa (EGU, **eguneratzea**)
 - Iristea, graduatzea eta egokitasuna: eskola uztea, hurbilketa hezkuntza mailak kontuan hartuta.
 - Gaitasun matematikoetan, irakurtzeko ahalmenetan eta zientzian etekina (PISA, **eguneratzea**).

2.2.2. Gazteen prestakuntza espezialitateak eta ezagutza arloak

- Matrikulatutako gazteen eboluzioa, irakaskuntza motaren arabera.
- **Profesionaltasunaren ziurtagiria lortu duten gazteen eboluzioa. Balio osoak (gutzizkoa eta sexuen arabera) eta gutzizkoen gainean garrantzia.**
- Lanbide Heziketan tituludunen eboluzioa.
 - **Txandakatuta prestakuntza dualaren bidez titulazioa lortzen duten gazteen aipamena (balio osoak eta erlatiboak).**

- Ezagutza arloen arabera unibertsitatean tituludunen eboluzioa.
- Adierazlea: 20 eta 29 urte arteko pertsonak, Zientzia eta Teknologian tituludunak (eguneratzea).

2.3. LANAREN EREMUAN ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETAREN SISTEMA

2.3.1. Eskariari buruzko trebakuntza

Gazteentzat enpresek programatutako trebakuntza. Balio osoak (gutzizkoa eta sexuen arabera) eta gutzizkoen gainean garrantzia.

Iturriak: Tripartita Fundazioa eta HOBETUZ

2.3.2. Eskaintza eratzea

- Langile gazte okupatuentzat administrazio eskudunaren prestakuntza eskaintza. Balio osoak (gutzizkoa eta sexuaren arabera) eta gutzizkoaren gaineko garrantzia.
Iturriak: Tripartita Fundazioa (BPB...) eta Hobetuz
- Langile gazte langabetuentzat administrazio eskudunen prestakuntza eskaintza. Balio osoak (gutzizkoa eta sexuen arabera) eta gutzizkoen gainean garrantzia.
Iturriak: Lanbide eta Tripartita Fundazioa

2.4. PRESTAKUNTZATIK LAN JARDUERARA

- Lanekoak ez diren praktikak eta bekak. Titulazio arautua lortu ostean, dagoen programa sorta zabalari buruzko argazkia.

2.5. LAN JARDUERAREKIN EAEKO GAZTEEN HARREMANA

- **2.5.1. EAEn gazteen jarduera eta jarduerarik eza** (kasu batzuetan europar batez bestekoarekin alderatzea):
 - 16tik 35 urtera arteko biztanleen ehunekoa lan egiteko adinean dagoen biztanleria, biztanleria aktiboan eta lanean dagoen biztanlerian.
 - EAEn gazteen jarduera eta jarduerarik eza.
 - Prestakuntza/hezkuntza eta jardueraren arteko harremana aztertzea (bereziki, 24 urtera arteko tartean).
- **2.5.2. EAEko gazteen lan ibilbideak**
 - EAEn lan merkatuan sartu eta bertatik ateratzeari buruzko fluxuak
 - EAEko gazteen lan ibilbideak, Lan Biziaren Etengabeko Laginaren arabera.
- **2.5.3. EAEko gazteen enpleguaren ezaugarriak** (kasu batzuetan europar batez bestekoarekin alderatzea):
 - Enpleguaren behin-behinekotasuna
 - Lanaldia
 - Ordainsarien baldintzak
 - Lan kategoriak



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

3. ENPLEGUAREN ETORKIZUNEN EZAUGARRIAK: 4.0 TESTUINGURUAN ENPLEGUAREN BILAKAERAN JOERAK

Kapitulu honen helburua 4.0 testuinguruan enplegu aukeren testuinguruak nola eboluzionatuko duen aurkeztea da.

Horretarako, batetik, munduan, Europan, Estatuan eta EAEn proiektio edota etorkizunerako azterketa kualitatiboekin laborpen zorrotza egingo da eta, ondoren, hiru focusgroup izeneko bitartez joerak alderatuko dira.

LABURPEN BETEARAZLEA

3.1. JOERAK ADIERAZTEA: PROIEKTIO ESTADISTIKOEN EDOTA AZTERKETA KUALITATIBOEN ESKAINITAKO IKUSPEGIA

Proiektio estatistikoak edota azterketa kualitatiboak erabiliz, bolumena, ezaugarriak eta zeregina kontuan hartuta, enplegua nola eraldatzen ari den azaldu nahi da, baita nola eraldatuko den ere.

Besteak beste, honako alderdiak deskribatzen saiatuko dira:

- 4.0 testuinguruan enplegu aukerak sortu ahal izango dituzten jarduerak eta ogibideak.
- 4.0 testuinguruan eskatuko diren titulazioak, prestakuntzak eta gaitasunak.

3.2. ADIERAZITAKO PRESTAKUNTZEN ALDERATZE KUALITATIBOA

Alderatze kualitatiboa hiru focusgroupez (FG) baliaturik egingo da. Ildo horri jarraiki, partaideak enpresa erakundeek (FG1), sindikatu erakundeek (FG2) eta gazteen erakundeek (FG3) proposatuko dituzte.

4. AZTERKETA KONPARATUA

LABURPEN BETEARAZLEA

4.1. ESKUALDEKO IKUSPEGI ALDERATUA

3 eskualdeak hautatzeko, EAerekin dituzten parekotasunei erreparatuko zaie: tamaina, autonomia maila, ekonomia eta gizarte egitura, produkzio eredua; eta ezberdintasun/ezaugarri esangarriekin gazteen enplegua.

Analisiaren aldia: 2000-2015

Laburbilduz, EAEn pertsonak eta kolektiboak laneratzeko orduan, "lanaren eta gizartearen ingurunean" ditugun lagungarriak edo mugatzaileak ezagutzen eta alderatua hori neurtzen saiatuko da.

4.1.1. GIZARTE ETA EKONOMIA EGITURA

Erreferentziazko eskualdeetan gazteen enplegu, langabezia eta jarduerari buruzko datuak eta tasak, euskal gazteetan aztertutako adin tarteetan eta EAEkoekin alderatzea.

4.1.2. HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA SISTEMA

Hezkuntza/prestakuntzarekin zerikusia duten datuak eta tasak.

Prestakuntza—enplegua ibilbidea.

Ikuspegi konparatua.

4.1.3. LAN ETA BIZI BALDINTZAK

Lan eta bizi baldintzak: ordainsarien baldintzak eta ez direnak (ordutegia, bateratzeko neurriak, kontratazio motak...), baita emantzipazioa, etxebizitza lortzea, etab. ere. Ikuspegi konparatua.

4.1.4. LANTZEN ARI GAREN ARLOAN POLITIKA NAGUSIAK. GAZTEEN LANERATZEA ERRAZTU EDO MUGATZEKO TRESNAK

Politika aktibo nagusiak, irismena eta estaldura (bereziki, hobariak eta diru-laguntzak).

Eskualde bakoitzean garatutako gazteen berme programa aztertzeke atal berezia.

...

Ikuspegi konparatua.

Iturriak: Eurostat. Eskualdeen urtekaria. Hautatutako herrialde/eskualdeen estatistika erakundeak. Eskualdeen bestelako bibliografia aipamenak².

4.2. PRAKTIKA ONAK IDENTIFIKATZEA

Helburua dauden tokietan praktika onak identifikatzea da honakoen inguruan:

- Orientabidearen, prestakuntzaren edota bitartekaritzaren arloan prozesu arrakastatsuak.
- Enpresa - prestakuntza unibertsarioa konexio mekanismoak (adibidez beka eta praktiketako sistemak).
- Prestakuntza sistema aldaketetara moldatzeko mekanismoak.
- Gazteentzat kontratu formulak.

5. LABURPENA, ONDORIOAK ETA GOGOETAK

5.1. LABURPENA

5.2. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

² Eskualdeak hautatu ostean, informazio iturriak osatuko dira.